

KANALAK

Banaketa kanalei dagokionez, normalean ez genuke halakorik egin beharko, ez bada hitzaldi, hizketaldi edo solasaldi bat gauzatzeko eskaera jaso dugun eta horretarako hitzaldia gauzatzera joan behar garen. Gainontzeko zerbitzuak gure bulegoan bertan eskainiko genituzke. Komunikazio kanalak hurrengokoak lirateke: mugikorra, webgunea, sare sozialak, guk sortutako enpresaren inguruko aldizkaria lirateke nagusiak. Salmenta kanalei dagokienez, kalean itsatsitako kartelak, webgunea, prentsa-publizitatea, mugikor bidez (WhatsApp) izango lirateke nagusiak.